

## **2014-2015EKO EPE: GAINDITU DUTENEN ZERRENDARI BURUZKO INFORMAZIOA**

### **Gainditu dutenen zerrendak jasotzen dituzten ebazpenen argitalpena**

Osakidetzaren **2014-2015eko EPEaren webgunean**, Giza Baliabideetako zuzendariaren ebazpenak argitaratu dira **2016ko martxoaren 9an**; gainditu dutenen zerrendak daude jasota horietan, puntuazioaren eta **honako kategoria hauen** arabera:

**FE FAMILIAKO MEDIKUA LMT**  
**FE PEDIATRIAKO MEDIKUA LMT**  
**Erizaina**  
**Fisioterapeuta**  
**Emagina**  
**Laborategiko teknikari espezialista**  
**Erizaintzako laguntzailea**  
**Administrari laguntzailea**  
**Zeladorea**

Era berean, **hautaketa-proben emaitzei** dagokienez, honako informazio hau argitaratu da:

- Hautaketa-probetako galderak aldatzeko/baliogabetzeko dokumentua
- Kategoria bakoitzeko azterketako erantzunen txantiloi eguneratuak
- Kategoria bakoitzeko azterketako emaitzen zerrenda eguneratuak

### **Gainditu dutenen zerrendak argitaratu osteko ekintzetarako epea**

Interesa duten kategoria horietako pertsonak **2016ko martxoaren 10etik 21era bitartean** izango dute aukera esandako ekintzetarako.

### **Interesdunen egitekoak**

Interesa duten pertsonak **gainditu dutenen zerrendak jasotzen dituzten ebazpenen aurkako erreklamazio erregistratua aurkeztu ahal izango dute** hamar egunez, ebazpenok argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita; hau da, **2016ko martxoaren 10etik 21era bitartean**.

Gainditu dutenen zerrendan ageri diren pertsonak, **hautaketa-prozesuan aurrera jarraitzeko**, honako ekintza hauek egin beharko dituzte **2016ko martxoaren 10etik 21era bitartean**, **eskakizunak eta merituak alegatzearekin** loturik:

**1.- Egiatzatu beharko dute gainditu dutenen zerrendan ageri direla eta Osakidetzak euren eskura ipinitako informazioa zuzena dela** (2014-2015eko EPEaren webguneko kontsulta pertsonalizatuen atalean)

Osakidetzak ipinitako informazioa ez balego zuzen, berrikusteko/aldatzeko eskatu ahal izango dute, datuak aldatzeko eskaera-orria beteta (Gainditu dutenen zerrendaren jakinarazpenean dago esandako

dokumentua: baldintzak eta merituak egiaztatzeko dokumentua)

2.- **Baldintzak eta merituak egiaztatzeko dokumentua betetzea, erregistratzea eta entregatzea** (gainditu dutenen zerrendaren oharrarekin batera dago agiria: baldintzak eta merituak egiaztatzeko dokumentua). Dagokion dokumentazioarekin batera atxiki behar da, baldin eta beharrezkoa bada, deialdiaren oinarriek eta gaindituen zerrenda jasotzen duen ebazpenak diotenarekin bat.

Baldintzak eta merituak egiaztatzeko dokumentua entregatzea beharrezkoa da hautaketa-prozesuan jarraitzeko.

3.- **Baldintzak eta merituak alegatzea eta/edo entregatzea** deialdiaren oinarri orokorretan eta espezifikoean zehaztuta bezala, baita gainditu dutenen zerrenda jasotzen duen ebazpenean zehaztu bezala ere (informazio osagarria ikusteko, kontsultatu gainditu dutenen zerrenda: Merituak eta baldintzak eskuratzeko eta alegatzeko eskuliburua).

**Baldintzak eta merituak** 2014-15eko Enplegu Publikoko Eskaintzan izena emateko azken egunean hartuko dira kontuan; hau da, **2015eko uztailaren 3an, euskararen hizkuntza eskakizunen egiaztagiriak** izan ezik.

#### **Baldintzak:**

Titulazio akademikoa: titulazioa alegatu beharko du, aplikazio informatikoaren bidez eskatutako informazioa mekanizatuta.

Herritartasunaren eskakizuna: Nortasun Agiri Nazionala (NAN) izan ezean egiaztatu beharko du, dagokion dokumentazioa aurkeztuta.

Desgaitasuna: desgaitasun/desgaitasun intelektualaren kupoaren barruan parte hartuz gero, esandako egoera aitortzen duen ebazpenaren kopia konpultsatua aurkeztu beharko da.

#### **Merezimenduak:**

Lan-esperientzia: deialdiaren oinarrietan azaldutako edukiarekin lotuta emandako zerbitzuak, jatorrizko ziurtagiria edota notarioak emandako kopia autentikoa aurkeztuta. Osakidetzan emandako zerbitzuak ofizioz konputatuko dira; halaxe konputatuko dira, halaber, Osakidetzan erregistratutako beste herri-administrazio batzuetan emandakoak eta Osakidetzaren esku jarrita daudenak aplikazio informatikoaren bitartez.

Trebakuntza eta jakintzaren irakaskuntza eta zabalkuntza: merituok alegatu beharko ditu, aplikazio informatikoaren bidez eskatutako informazioa mekanizatuta. Uneotan ez da beharrezkoa agiriok aurkeztea.

#### **Euskara:**

Aplikazio informatikoan erregistratuta egon ezean, egiaztatuta daukazun **hizkuntza-eskakizunak** baldintzak eta merituak egiaztatzeko azken egunera arte alegatu ahal izango dituzu, ondoren baldintza eta/edo meritu gisa kontuan hartzeko; hau da, 2016ko martxoaren 21era arte.

Halaber, baldintza eta/edo meritu bezala kontuan hartuko dira **2014-2015eko Enplegu Publikoko Eskaintzaren barruan hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko egingo diren proba espezifikoak ere**. Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu 2014-2015eko EPEko euskara-probari buruzko informazio-oharra.

### **Aplikazio informatikora sartzea eta pasahitza**

Osakidetzan jasota dagoen informazioa egiaztatzeko eta baldintzak zein merituak alegatzeko, elektronikoki sartu beharko duzue honako webgune honetatik: <http://www.osakidetza.euskadi.eus>. Jarraitu honako bidea: Profesionala naiz/Giza baliabideak/Hautaketa eta hornidura/2014-15 EPE/Kontsulta pertsonalizatuak

Hautaketa-prozesuan, honako **pasahitza** erabili beharko duzu:

a) Osakidetzaren informazio-sistemetan sartzeko erabiltzen duzuna (Langilearen ataria, Osabide edo Norbide), 2014ko urtarrilaren 1etik hona Osakidetzan lan egin duten pertsonak ere bai. Pasahitza gogoratzen ez baduzu, honako telefono-zenbaki honetara dei dezakezu: 945 006 350.

b) Osakidetzaren informazio-sistemetara sartzeko modurik ez badaukazu: 2014-15 EPEan izena emateko erabilitakoa. Pasahitza ahaztu baduzu:

- eskaera-orriaren bidez eska dezakezu, aplikazioak sartzeko kontrola eskatzen dizunean; kasu horretan, mezu elektronikoa bat jasoko duzu eskaera egiteko garaian eman zenuen helbide elektronikoan;

- ezin izan baduzu pasahitza berreskuratu edota bidali dizutenarekin ere ezin baduzu sartu: deitu 945 006 150 telefono-zenbakira, eta bertan esango dizute pasahitza nola eskatu eta lortu, edota bestela [epe-ope@osakidetza.eus](mailto:epe-ope@osakidetza.eus), helbidera idatzi, NANaren kopia eskaneatua bidalita.

### **Dokumentazioa entregatzea**

Dokumentazioa Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan ezarritako moduan entregatu ahal izango da (Estatuko Administrazio Orokorraren edozer administrazio-organotan; autonomia-erkidegoen edozer administrazioetan; diputazioen, kabildoen, uharte-kontseiluen administrazioetan...)

Aurrez aurreko arreta behar izanez gero, Osakidetzak honako hauek ipini ditu:

**Osakidetzako langile izanez gero** nork bere lan-zentroko zerbitzu-antolaketako Langileen Zuzendaritzara jo dezake.

**Osakidetzan lan egiten ari ez direnen kasuan**, honako edozer tokitan jaso ahal izango dute aurrez aurreko arreta:

Araba:

- Osakidetza – Hautaketa eta Horniketarako Zerbitzua (Araba kalea 45, Vitoria-Gasteiz)
- Arabako Erakunde Sanitario Integratua Txagorritxuko egoitza. Jose Atxotegi kalea z.g. 01009 - Vitoria-Gasteiz)
- Arabako Errioxako Erakunde Sanitario Integratua (Logroño-Gasteiz errepidea, 59. km. Guardia)

Bizkaia:

- Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta Erakunde Sanitario Integratua. (Gurutzetako plaza z.g. Gurutzeta-Barakaldo).
- Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratua. (Montevideo etorbidea, 18. Bilbo edo Kale Nagusia 62, 2 Bilbo)
- Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratua. (Labeaga auzoa z/g. Galdakao)
- Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea. Bermeoko ospitalea. (Tonpoi Bidea z/g. Bermeo)

**Gipuzkoa:**

- Donostialdea Erakunde Sanitario Integratua (Begiristain Doktoarearen pasealekua z.g. Donostia/San Sebastián)
- Bidasoako Erakunde Sanitario Integratua (Zubieta finka, Mendelu auzoa, z/g. Hondarribia)
- Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratua (Nafarroa etorbidea, 16. Arrasate)
- Goierri-Urola Garaia Erakunde Sanitario Integratua (Argixao auzoa z.g. Zumarraga)
- Debabarrena Erakunde Sanitario Integratua (Mendarozabal auzoa z.g. Mendaro)

**Aurrez aurreko arreta-ordutegia:**

Astelehenetik ostiralera: 09:00etatik 14:00etara.

**Giza Baliabideen Zuzendaritzaren Hautaketa Zerbitzuaren arreta-ordutegia (Vitoria-Gasteiz)**

Astelehenetik ostegunera: 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 16:00etara.

Ostirala: 09:00etatik 14:00etara.

**Informazioa**

Interesa daukaten pertsonak honako helbide honetan eskura dezakete informazio gehiago: <http://www.osakidetza.euskadi.eus> (Bidea: Profesionala naiz/Giza baliabideak/Hautaketa eta hornidura/2014-15 EPE) eta 945 006 150 telefonoan.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 9a.